

# noa.ua

Zaldi-haragi pintxoak,  
igande honetako Tipi Tapan

Gurasoak ere,  
Mintzalagun

Larunbat honetan  
Oria ibaia garbitzeko  
deia egin du Urgardenek



**Martxoaren 8a**

**Bezperatik hasiko dira ospakizunak**



**IVAN  
PEREZ**  
ipfoto.es

Bordaberri 3  
943 573 775 - 657 795 379  
www.ipfoto.es

Argazki Denda



Ezkontzak - Haurrak - Jaunartzeak  
Book - Haurdunaldiak - Enpresa  
Iragarkia - Kamet Argazkiak  
Errebelatze Digitala

Heldu da  
**DENBORALDI  
BERRIA**

**Marije**  
Arropa denda

Fitxetesta 3 - 943 36 11 06 - USURBIL

**URTINEA  
LORATEGIA**

**Zatoz**  
eta jantzi kolorez  
zure etxe, balkoi  
zein lorategia

**Udaberria Urtinean**

Egun osoa irekia • San Esteban auzoa • 943 362 255 • Faxa: 943 366 054 • [urtinea@urtinea.com](mailto:urtinea@urtinea.com)

## Albisteak iruditan

# Zaldi-haragi pintxoak, igandeko Tipi Tapan

**I**gande honetan ospatuko den laugarren Tipi-Taparako menua prest dute jada, Artzabal, Txapeldun, Bordatxo, Aitzaga eta Txiriboga tabernekek. Martxoaren 3ko hitzorduko zizka-mizkak elaboratzeko hautatu duten produktua zein den jakiteko, ondoko argazkia begiratu besterik ez dago.

Tabernetako langileak ondoko erretratuan iragartzen ari diren moduan, zaldi-haragidun pintxoak dastatzeko aukera egongo da aipatu bost edaritegiotan. "Zaldi azpizun carpaccioa, zaldi-haragizko bolak, zaldi enpanadak fuarekin, zaldi hanburgesak saltsa bereziarekin, zaldi haragizko gisatua", berri eman dute antolatzaileek, Hurbilago Usurbilgo Merkatarien eta Ostalarien Elkartetik. Ohi bezala, pintxo hauek igande goiz eta eguerdi partean eskatu ahal izango dira, arratsaldeko 15:00ak arte.

Ez ahaztu bost edaritegiotako batera joanez gero, "Tipi-Tapa txartela" eska-



Tabernariak, igandeko Tipi Tapa iragartzen.

ztea. Aurreko edizioetatik jasoia baduzue, gogoan izan balio duela. Taberna guztietako zigiluak lortu ostean, tabernetako kutxetako batean utzi eta 300

euroko erosketa-balearen zozketan parte hartu ahal izango duzue. Zozketa bi hilean behin egiten da. Hurrengoa, apirilaren 7an Bordatxon.

## Laburrean

### Gizarte Zerbitzuetako gida hasiko dira banatzen laster

"Gizarte Zerbitzuen euskal sistemako programa, zerbitzu edota gizarte baliabideak ezagutzera ematen dira", berri eman dutenez. Laster banatuko da. Nahi duenak, [www.usurbil.net](http://www.usurbil.net) orrialdean ere eskuratu ahal izango du PDF euskarrian.

### Martxoaren 2an, 1979koen kinto bazkaria

Martxoaren 2rako kinto bazkaria antolatu dute 1979an jaiotako herritarrek. Saizar sagardotegian ospatuko da otordua. Izen emateko zerrenda Txiribogan jarri dute. Apuntatzeko azken eguna, otsailaren 28a izango da.

### Euskaltegian, Korrikako arropa salgai

Martxoan ospatuko den euskararen aldeko lasterketako arropa salgai jarri dute, Etumeta AEK euskaltegian. Martxoaren 11ra arte eskuratu ahal izango dira jantziak. Informazio gehiago: [usurbil@aek.org](mailto:usurbil@aek.org) edo 607 609 379.

# noaúa

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// [elkartea@noaúa.com](mailto:elkartea@noaúa.com) /// [www.noaúa.com](http://www.noaúa.com)  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ana Aizpurua.

**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.  
**Publizitatea:** Arantxa Zulaika,  
[publizitatea@noaúa.com](mailto:publizitatea@noaúa.com).

**Diseinu berria:** Erroitiz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**  
[erredakzioa@noaúa.com](mailto:erredakzioa@noaúa.com):  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,  
Aizpea Aizpurua.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Lurdes  
Kamino.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria  
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,  
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,  
Denis Elortza, Pello Aranburu,  
Xabier Aranburu, Inma Balda,  
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,  
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia  
Torregarai eta Udarregi ikastola.  
**Tirada:** 2.800 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.  
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





## Ugaitz Agirre

Goizeko zazpiak pasatxo. 7:04 ordulariaren tik-takaren arabera. **Zerua** urdin esnatu da, hodei bakan batzuk **noraeezan**, baina eguraldi polit bat espero delakoa dirudi. Kaiok eta usok goizeko hegaldietan builaka esnatu dira. Dirudi idaztera nindoan, baina ez, **dirudi** iruditzeari dagokio eta iruditzeari baino gehiago izateari dagokio, beraz dira. Kafesnea, zigarro bat eta **beranduaxeago** jango dudana urtebetetzeak ospatzeko egindako arroz-esnea plater txiki batean. Seguruena esne katilu baten konpainian hartuko dudana.

*Zentzugabea kezdu zentzurik, ezgaldu denbora horretan.*

**Istorio** bat idazten nabil. Beno, egia esan berridazten. Jada idatzia dago, baina adituen arabera zerbait falta omen zaio idazlan zaharrari eta beraz berri **bihurtzeko** prozesuan sartuta nabil. Akaso ez da zaharra bezalakoa izango, denbora galtze ederra bestelara. Zer zentzu putza izango luke zaharra eta berria berdinak izateak? Puta idaztea gehiegitxo? Tabuak **zakarrrontzira** botatzeko daude, egunen batean noski, tabu izatea uzten die-

## Zentzua ematen zabilta zentzugabeari?

tenean, bitartean ukiezinak baitira. Aipatu ere ezin dira egin. Baina itzul nadin istorioaren kontura.

*Negritazko hitzen misterioa?*

Bai (**hamaikagarren** baieztapen bat bezala), badakit mundu honetan beste hainbat gauza daudela kontatzeko, kritikatzeko, aipatzeko... beste aditzik baduzu zerrendan sartzeko? Lektu bat egingo nizuke, baina alferrikakoa iruditzen zait. Testu honen fondoan beltza da eta beltzaren gainean nola idaztea pentsatzen duzu ongi ikusteko moduan idazten duzuna? Pentsatzen egon naiz testu bat idatzi beharrean dena zuri uztea, beno dena beltz uztea, horrela zuki idatzenezakeen aste honetako herorrek esana, baina boligrafo tinta txuridunik ez dagoen bitartean apur bat zaila iruditzen zait. Batzuk alferkeria moduan ulertuko lukete seguruena. Bi **hilabete** behin zerbait idatzi behar eta hori ere egiteko gauza ez, alproja ederra bihurtuko nintzatekeen orduan. Idazle batzuk egin izan dute hori beren liburuetan eta horrelako kritikarik ez dut egundaino entzun. Iritzi artikulua eraberritze bat bezala ulertuz, hala ere, ummm

alprojarena eta alferrarena pentsatzea errazagoa da. Bai (hau **hamaikagarren** baieztapen bezala), badaikit Italiako hauteskundeak aipa nitza keela bertan egonda edo Aita Santuaren **dimisioa** edo bere azken... igandetako mezari nola deitzen zaio? Albistegian esan dute, baina ez naiz gogoratzen, ez diot garrantzia handiegirik eman. Eta elurra egin duela ere aipatzea ez legoke gaizki, baina "elurra etorri da" izeneko artikulua bat idaztea hango elurrik ikusi gabe... ez zen oso fidela izango. **Orduan** bai alproja bat izatea pentsatuko nukela. Eta noiz edo noiz pentsatzen dut, baina hori beste kontu bat da.

*Inkontzienteki misterio bat sortu duzu.*  
Bai ama, hitz egin dut amonarekin. Baina hori konfidentziala da. CIAko topsecret artxiboetan topatuko duzu. Eta hitz egin nahi nuenera itzuliz, ba istorio bat berridazten nabil. Ez dakit nola izena duen, oraindik ez du izenbururik. Pentsatuko dut horren inguruan beste batean. Kontua da **amets** eta ametsgaiztoen inguruan hitz egiten dudala. Zuk izango zenituen bate-tik eta bestetik. Nik ere, batzuetan gau berdinean. Horrelakoak idatzi ditut

amets politik ametsgaizto **beldur-garrienak** bihurtzen direlarik. Irakurlea hiltzeraino iritsi naiz. Hostia puta! Hau sekretu bat izan behar zen, sorpresa bat oparitarako paperarekin bilduta. Borra dezakedala idatzitakoa? Hori nik ere badakit, baina ez litzatekegeratu den bezala geratuko. Ez duzu uste?

*Esaldiak sordaitzkeela hitz horiekin?*  
Karakterek amaitzen ari zaizkit eta ez dilemarik, ez arazorik, ez ezer ez dizut kontatu. Istorioarenari buruz idatzi nahi nizan eta adarretatik joan naiz eta **okurritzen** zitzaidan lehen gauza etorri zaidan modu berean idatzi dizut. Zentzurik gabe. Eskolan ez ziguten artikulua horrela idazten irakatsi eta hau artikulua bat ere ez da izango seguruena. Badakizu nola hasten den nire istorioa? Manifestu bat **absurdoaren** alde, manifestu bat arrazoiaren aurka. Irrazionala, absurdoa, ametsa, utopia... Agian zuk bada-kizu zergatik hostoak haizea baino **harantzago** ez duen ikusten.

*Zentzugabea ulertzeak itsutu zaitu. Alferrik galdu duzu denbora. Eta bai, putakume bat naiz horrelako gauzak idazteagatik.*

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | **Ugaitz Agirre**

## Ika-Mika

# Usurbilgo Eskola Publiko baten bideragarritasun txostena

2013ko urtarrilaren 25ean Udalaurrekontuei "AUKERA" talde-tik erreklamazio bat sartzea erabaki genuen. Erreklamazio horretan, Usurbilgo Eskola Publiko baten bideragarritasun txosten bat egiteko 24.000 euroko partida bat izendatzea eskatu genuen.

"AUKERA"ren asmoa, ixilean dauden hainbat herritarren nahari aho-tsa jartzea da. Gogoratu behar da, egin genuen inkesta batean (udal-txetan daude datuak) ia 100 famili, beren seme-alabak eskola publikora eramateko prest agertzen zirela. Horregatik bideragarritasuna txos-

ten, ikerketa plurala, askea eta sakona egingo duen enpresa bati eskatzea litzateke gure helburua. Horrela egiteak, Usurbilgo herrian ezkutuaren dauden benetako hezkuntzaren beharrak agerian jarriko liratekeela uste dugu. Bada garaia, gure herri honetan, hezkuntzaren inguruan dauzkagun mamuak saihesteko eta uxatzeko. Ezin dugu, orain dela 20 urte bezala, gauzak aldatu ez balira bezala jokatzeko jarraitu.

Horrelako eskari bati, Usurbilgo udal agintaritzan daudenen erantzuna ezezik borobila izan da, inongo arrazoirik azaldu gabe. Ukazioaren

aurretik eta atzetik, formulismoko hitz-jario ugari jarri, baina funtsezko arrazoi agertu gabe hiru orri bete.

Aste honetan Udaregi ikastolan banatu duten IKASTOLA aldizkarian ordea, EH Bilduren ordezkaria den Asier Lauzirikak, honako hau esaten du: "Hezkuntza sistema propio, eskaldun, publiko eta parte hartzaile bat eraikitzeke pausuak ematen hasi behar dugu" («Hamar galdera alderdi bakoitzari», Ikastola aldizkaria, 202. zbk, 2013ko otsaila, 11. or.).

Gure herriko ordezkariak ez datoz bat EH Bilduko ordezkariak esandakoarekin. AUKERatik eskola publiko-

aren alde egin ditugun eskariei, erantzunik eman ez edo ezezkoa eman digute. Ez dugu ulertzen jarrera ezberdin honen zergaitia. Agian Euskalherri osorako eskola publiko eskaldun bat ona da, baina Usurbilerako ez. Zergatik?

**Aukera,**  
**Euskal Eskola Publikoa Usurbilen**

**OHARRA: Errauskailurik ez, ez Zubietan ez beste inon izeneko Ika-Mika eman genuen argitara aurreko astean. Gutuna Zubietako Herri Batzarrak igorritakoa zen eta ez Gipuzkoa Zero Zaborrek, guk ipini bezala. Barka eragozpenak.**

# Emakumeon Eguna, bezperatik

Martxoaren 15era arte, erakusketa zabalik izango da kiroldegian eta Artzabalen

**M**artxoak 8 izango ditu astebete barrru, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izango da hain zuzen. Bezperatarako, ekimen desberdinak antolatu ditu Usurbilgo Parekidetasun Kontseiluak, Bota Punttubaren laguntzaz; pala txapelketa, mural pintaketa edota bertso-afaria.

Hasteko ordea, ostiral honetatik, martxoaren 1etik 15era, garai bateko eta duela gutxi ateratako argazki erakusketa bat irekiko da. Herriko emakumeak dira erretratu guztiotako protagonistak. Zenbait herritar eta taldeek eginiko ekarpenei esker osaturiko irudi bilduma hau, Oiardo Kiroldegian eta Artzabalen ikusgai izango da hurrengo bi asteotan.

## PALA TXAPELKETA

Martxoaren 8aren inguruan antolatu dituzten gainerako ekitaldiak, datorren astean burutuko dira. Batetik, emakumeen binakako pala txapelketa ospatuko da, martxoaren 6 eta 7an, 18:30etatik aurrera frontoian. Hamar minutuko partidak jokatu dituzte parte hartzaileek. Txapelketan izen emateko, deitu 943 377 110 telefono zenbakira, edo idatzi parekidetasuna@usurbil.net helbidera, martxoaren 4a baino lehen.



Parekidetasun Kontseiluko kide batzuk, martxoaren 7ko ekitaldiak iragartzen.

## ARTZABALEN

**Martxoaren 7an egingo dira ospakizunak. Bertso-afarirako txartelak Artzabalen eta Txiribogan daude salgai**

Txapelketak, martxoaren 7rako antolatu den Emakumeon Egunaren baitan jarraituko du, ordu eta leku berean. Baina aurretik, pilotalekuan bertan baina 17:00etan, emakumeen eskubideei loturiko murala margotuko dute Gaztelekuko kideek. Aldez aurretik, gai honen inguruko lanketa egin dute Gaztelekuan.

## BERTSO-AFARIA

Emakumeon Eguna borobiltzeko, iaz bezala, bertso-afaria antolatu dute hilaren 7an Ar-

tzabalen. 21:00etatik aurrera, afari eder baten bueltan, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Amaia Agirreren bertsoak entzuteko aukera izango da. Baita, emakumea eta sexualitatea

hizpide dituen Itziar Sanz de Ojerren "Gozamenez" klown bakarriketa entzutekoa ere. Guztia, 15 euroren truke. Txartelak salgai dira Artzabalen eta Txiribogan.

## Emakumeon Eguneko hitzorduak

### Martxoak 1-15

"Usurbilgo emakumeak protagonista" argazki erakusketa, Oiardo Kiroldegian eta Artzabalen.

### Martxoak 6, asteazkena

**18:30** Emakumeon eskubideen aldeko palakadak! Emakumeen binakako pala txapelketa frontoian.

### Martxoak 7, osteguna

**17:00** Mural pintaketa frontoian.  
**18:30** Emakumeon eskubideen

aldeko palakadak! Emakumeen binakako pala txapelketa frontoian.

**21:00** Bertso-afaria Artzabalen, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Amaia Agirrerekin. Itziar Sanz de Ojerren "Gozamenez" klown bakarriketa. Sarrerak 15 eurotan salgai, Txiribogan eta Artzabalen.

**Antolatzailea:** Usurbilgo Parekidetasun Kontseilua.

**Laguntzailea:** Bota Punttuba Bertso Eskola.

**ARRANDEGIA PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

**www.noaua.com**  
USURBILGO ATARIA

**Errazkin S.L.**  
igeltseritza orokorra  
943 24 01 76 eta  
649 435 470  
errazkinsl@euskalnet.net  
Oztaran auzoa 33, URNIETA

# Aralar: “Krisiak baldintzatutako legegintzaldia izaten ari da”

**2**013ko udal aurrekontuen inguruko azalpenak eman zizkigun aurreko astean Mertxe Aizpurua alkateak. Aste honetan, oposizioko alderdi batzuen hitzak jaso ditugu. Aralarren esanetan, “diru-sarrerak asko gutxitu dira eta ondorioz diru-gastuak zorroztasunez berrikusi behar izan dira”.

**Udal aurrekontuak onartu berri dira. Zuen alderdiaren ikuspuntutik, nola baloratuko zenukete 2013ko aurrekontuen inguruko prozesu osoa?**

**Aralar.** Bilduk 2013ko aurrekontuen zirriborroa prestatu zuenean Aralarrekin konpartitu nahi izan zuen ahal bazen adostasun batera iristeko. Beste alderdiei batzordean bertan aurkeztu zieten lehen proposamena beraien ekarpenak jasotzeko.

Jarrera eraikitzailean izan ditugu bilera batzuk eta azkenean adostasunera iristea lortu dugu.

**Azken hamar urteotako baljuena izango da, krisi giroak hala eraginda. Orohar, aurrekontu hauen ildo nagusiek zer nolako inpresioa eman dizue? Proposatu diren inbertsioak egoki ikusten dituzue?** Diru-sarrera garrantzitsuenak Gipuzkoako Foru Aldunditik iristen dena, hirigintza-aprobetxamenduetatik jasotakoa eta udaleko zerga-bilketatik eskuratzen dena dira. Azkeneko urteetan lehenengo bi ataletan askoz diru-gutxiago jaso da eta ondorioz gastuak ere murriztu egin behar izan dira.

Murrizketak ia arlo guz-



Aralarreko bi zinegotziak, artxiboko irudi batean.

## ARALARREN BABESA

*Bilduk aurkeztu duen aurrekontu proposamenak Aralar alderdiaren babesa jaso du aurtan*

tietan nabarmendu dira. Inbertsioak ere asko mugatu dira eta beharrezkoak eta egokiak ikusi ditugun zenbait eginbeharretarako erabiliko dira. Txokoalde auzo ahaztua izan ohi da eta aurtan bertako Elkartearen aurreko plaza berrituko da. Ikastolan eraikin berria egingo dute laster eta udalak bitartean Agerialdeko jolastokian eta eraikinean lanak egingo ditu. Bizkarreko etxe “gorritan” patiotik garajeetara filtratzen den uraren arazoa konpontzeko udalak dagokion partea ordainduko du bi urtetan. Mikel Laboa plazaren urbanizazioa ere bukatuko da. Aginagako frontoian beharrezkoak diren konponketak ere egingo dira.

**Zuen alderdiaren iritziz,**

**2013ko aurrekontuak osatzeko orduan zertan asmatu du udal gobernuak? Eta zertan kale egin du edo zer ez du kontuan izan?**

Inbertsioetan aipatutakoaz gain ondorengo puntuetan asmatu dela esan genezake:

**Kulturgintzan** herriko elkarteek antolatzen dituzten ekitaldietarako aurreko urtean behar izan zen diru-kopurua mantendu egin da, eta hori nahikoa izan daitekeela pentsatzen dugu.

**Gizarte arloan** beharrean dauden pertsonentzako diru-laguntzak mantendu egin dira.

**Garapen-bidean** dauden herrialdeak dira krisia gehien pairatzen ari direnak eta hauei laguntzeko %0.8ko aportazioa egitea onartu da aurtan. Usurbil herri solidarioa da eta egoera ekonomikoa hobetzen denean berriro %1era iristea dugu helburu.

Herriko **bidegorriak** egiteko plan zehatza egingo da erdigunea ondoko auzoekin komunikatzeko.

**Kiroldegiko** gastuak murgatzeko eguerditan ixtea

erabaki da baina era berean larunbatetan beranduago itxiko da eskubaloi-elkartearen eskaria kontuan hartuta.

**Ingurumenean eta nekazaritzan** azterlanak egiteko diru-partidak onartu dira. Azterlan horiek zehaztuko dira laster.

**Udalak kutxekin** duen zorra gutxitzen ari da.

**Hobetu beharra** berriz: Zumarte musika-eskolarentzako etorkizuneko soluzio bat landu beharra dago.

**“Herriarren partehartzea bultzatzeko zenbait ekimen egiten ari dira”**

**Legegintzaldiaren erdira iritsiko gara laster. Nola baloratuko zenuke Bilduren udal gobernuak bi urteotan egin duen lana? Eta oposizioarena?**

Krisi ekonomikoa baldintzatuta legegintzaldia izaten ari da. Diru-sarrerak asko gutxitu dira eta ondorioz diru-gastuak zorroztasunez berrikusi behar izan dira.

Gainontzean Udala gobernuak gehiengo dauka udalean eta lasaitasunez ari da. Oposizioek oportazioak egin ditzagun aukerak ematen dituzte eta Aralarren eskaera batzuk onartuak izan dira. Partidu gehien arteko giroa ona da eta elkarren arteko komunikazioa ere bai.

Bestalde herriarren partehartzea bultzatzeko zenbait ekimen egiten ari dira eta ahalegin hori eskertzea da.





# Hamaikabat: “Udal egoera ekonomiko oso larrian gaude”

**H**amaikabat alderdiak ez zuen 2013ko udal aurrekontu proposamena babestu. Elkarrizketa honetan kritiko azaldu dira Bilduren jarrerarekin. “Ederki bildutako aurrekontua paseatu” dutela diote Hamaikabatekoek, “baina tripak erakutsi gabe”.

**Udal aurrekontuak onartu berri dira. Zuen alderdiaren ikuspuntutik, nola baloratuko zenukete 2013ko aurrekontuen inguruko prozesu osoa?**

**Hamaikabat.** Herritarrei begira bilera batzuk antolatu dira irudi partehartzailea irudikatzeke. Eta horixe izan da: irudia. “Opari kaxkar bat ederra dela azaldu nahi baduzu bildu paper ederrean”; horixe egin du Bilduren gobernuak: ederki bildutako aurrekontua paseatu, baino tripak erakutsi gabe.

Udal barruan, alderdien artean egin beharreko eztabaidan ez da sakondu nahi izan. Tramitazioa ziztu bizian joan da. Aralar eta Bilduren arteko akordioak beste alderdien ekarpenak alferrikakoak zirelakoan nonbait.

Aurrekontua behin behinagoz onartu eta gero, esposaketa publikoan egon den bitartean herritarrek eginiko alegazioak ere itxuragabe atzera bota dituzte. Eskola publikoa herrian izateko azterketa egin zedin diru partida bat eskatu da, eta mamira sartu beharrean deskalkifikazio pertsonalekin erantzun da.

**Azken hamar urteotako ba-juena izango da, krisi giroak hala eraginda. Orohar, aurrekontu hauen ildo nagusiek zer nolako inpresioa**



Hamaikabat alderdiko bi udal zinegotziak. Argazkia: h1usurbil.net

## HAMAIKABAT

**“Udal gobernuak ez da jabetzen udal estruktura eta zerbitzuak, gaizki dimentsionatuak daudela”**

**eman dizue? Proposatutako diren inbertsioak egoki ikusten dituzue?**

Arazoa ez da aurrekontua handiago edo txikiagoa izatea, baizik dagoena nola erabiltzen den.

2013. urtean aurrekontuaren %87 gastu arruntean erabiliko da, eta inbertsioetan %13-a, historiako baxuena. Guzti hau aurreko alkatearen ondarea da, badakigu, eta krisiak ere eragina du, baina aurrekontu honekin udalak duen arazo estrukturala ez da konpontze bidean jartzen.

Ondoren dator inbertsioetara erabiliko diren apurrak nola erabiltzen diren, eta aurrekontua oso erraz esplikatzeko: erdia, ikastola pribatu batentzat; beste erdia, herri mantenimendurako eta bizpahiru gauzatxo. Noski, ez gaude inondik ere ados

udalak 750.000 euro konprometitzea ikastolaren onurarako. Are gehiago hezkuntza sistemari buruz herri gogoeta bat tartean dagoenean. Herri gobernuari bost ajola izan zaio gogoeta hori. Berak, bere aukera du eta aurrera aterako du ikastolarekin batera. Hezkuntzari buruzko gogoeta prozesua tapadera soil bat izan da.

**Zuen alderdiaren iritziz, 2013ko aurrekontuak osatzeko orduan zertan asmatu du udal gobernuak? Eta zertan kale egin du edo zer ez du kontuan izan?**

Udal gobernuak ez da jabetzen udal estruktura eta zerbitzuak, gaur egungo egoerari erreparatuz, gaizki dimentsionatuak daudela. Ez da jabetzen diru sarrerek oso baxuak izaten jarraituko dutela beste hiru edo lau urteetan. Ez da jabetzen “economia de guerra” aplikatu behar dela eta ez dela nahikoa gehiengo absolutoa izatea edo Aralarrekin soilik paktoak osatzea. Udal egoera ekonomiko oso larrian gaude eta aho batezko akordioak bilatu behar ditu.

**“Oposiziotaz galdetzen diguzu: ze oposizio?”**

**Legegintzaldiaren erdira iritsiko gara laster. Nola baloratuko zenuke Bilduren udal gobernuak bi urteotan egin duen lana? Eta oposizioarena?**

**Hamaikabat.** Legealdi honetan ez badira aho batezko erabaki sendoak hartzen, hamar urte barru Usurbil oraingoa den bezalakoa izango da. Herritarrek honekin ados badaude: langabezi tasa altuenetan, udal ekonomia kiebra bidean, gazteak etxe bat izateko esperantzarik gabe, adinekoek –lehenetsunezko kolektiboa izango dena hurrengo urteetan- beharrezkoak dituzten zerbitzuak izan gabe, eskola publikorik gabe; ba, oso ondo. Guk, beste Usurbil bat nahi dugu.

Legealdi erdira iritsi gara eta udala, udal gobernuak, geldirik dago: kontu asko eta mami gutxi. Beren legealdi programa erreparatuzera gonbidatzen zaituztegu ikusteko noraino iritsi diren, zer gutxi egin duten orain arte. Aurreko alkateak erdibidean utzitakoak errematatzen nahiko lanak dituzte, herentzi polita utzi baitie.

Oposiziotaz galdetzen diguzu: ze oposizio? Batzuk gehiengoaren epele- eta besteak ezinean.

Gu berriz, belarri askorentzat gozagarriak ez diren egiak esanez.

# PSE-EEk beste lehentasun batzuk ikusten ditu herrian

Udal aurrekontu berriak Bildu eta Aralarren aldeko botoak jaso ditu. Hamai-kabat eta PSE-EE alderdiek ordeza, aurkako bozka eman dute. PSE-EEk zinegotzi bat du Usurbilgo Udaletxean, Ricardo Crespo gaztea. Bere ustez, "herri mailako plan bat egin beharko genuke langabetuen formakuntza ezagutzeko eta herrian dauden enpresak ze nolako langileak behar dituzten jakinda soluzioak bilatzeko".

**Udal aurrekontuak onartu berri dira. Zuen alderdiaren ikuspuntutik, nola baloratuko zenukete 2013ko aurrekontuen inguruko prozesu osoa?**

**Ricardo Crespo.** PSE-EEtik osoko emendakina aurkeztu genuen 2013ko aurrekontuetara. Bertan jasotzen diren kapitulu batzuekin ez gaude ados. Jakina denez ez gaude ados hondakinak jasotzeko sistemarekin, 668.900 euro ingurukoa dena. Baina badaude beste kapitulu batzuk adibidez, Udarregiko eraikin berriari bideratzen den partidarekin, 2013rako 200.000 euro. Gainera oraindik ez dugu ezagutzen horretarako ikastolak duen finantzaketa plana. Argi utzi nahiko nuke ez gaudela ikastolaren kontra baizik eta Usurbilen Eskola Publiko bat edukitzearen alde, eta uste dugu udal gobernuak ez dituela ahalegin asko egiten Eskola Publikoaren alde. Azken finean Eskola Publikoaren alde egiteak borondate politikoarekin zerikusi handia du.

Osoko emendakina aurkezteko beste adibideren bat izan liteke, Usurbilen 2013ko aurrekontuetan ez direla jasotzen krisi egoerak eta langabetuen egoerak pairatzen dituzten partidak. Eskualdeko lankidetzari bati ekarpenak egiten dira bakarrik. Herri mailako plan bat egin beharko genuke langabetuen formakuntza ezagutzeko eta herrian dauden enpresak zer nolako langileak behar dituzten jakinda soluzioak bilatzeko, adibidez.



PSE-EEko zinegotzia da Ricardo Crespo.

**Azken hamar urteotako bajea izango da, krisi giroak hala eraginda. Orohar, aurrekontu hauen ildo nagusiek zer nolako inpresioa eman dizue? Proposatu diren inbertsioak egoki ikusten dituzue?**

Krisia dela eta, onartu behar dugu aurrekontu oso murriztuak direla. Inbertsioak azkenean jarrera politikoak isladatzen dituzte. Beste batzuk Gobernuan egongo balira beste inbertsio batzuk egingo lituzkete. Eta seguru, inbertsio asko berdinak izango liriteke, herrian egin behar diren gauzak direlako. Adibidez, lehen esan dut ikastolako eraikin berriari 200.000€ udaletxeak ematen dion partidarekin ez gaudela ados, baina eskola publikoa alde batera utzi dutelako ikastolaren mesedetan, azken finean enpresa pribatu bat. Nik beste lehentasun batzuk ikusten ditut herrian, inbertsio aldetik.

**"Aire kalitateari buruzko neurriak gustukoak ditut"**

Zuen alderdiaren iritziz, 2013ko aurrekontuak osatzeko orduan zertan asmatu du udal gobernuak? Eta zertan kale egin du edo zer ez du kontuan izan?

**Ricardo Crespo.** Langabetuak eta krisia gehien sufritzen ari direnak ez ditu kontuan izan. Ez dute ezer berririk egin alde horretatik. Egia esanda, ez dira aurrekontu oso berriak izan. Bai aitortu behar dudala, aire kalitatearen arlotik adibidez, hartzen ari diren neurriak eta egitasmoak gustukoak ditudala.

**MUNALURRAKO PROPOSAMENA ONARTU DIO UDAL GOBERNUAK**

**Legegintzaldiaren erdira iritsiko gara laster. Nola baloratuko zenuke Bilduren udal gobernuak bi urteotan egin duen lana? Eta oposizioarena?**

Oposizio lana oso murriztua da gehien-go absolutua duen gobernu baten aurrean. Bilduk du bere eskuan oposizioari jaramon egitea ala ez. Gehienetan ez gaituzte aintzat hartzen. Oposiziotik, bestetik, ahal dugun moduan ekarpenak egiten ditugu. Adibidez udal gobernuak orain dela gutxi onartu zidan Munalurraren egin behar diren kaleen zentzuak aldatzea. Oraindik egiteke dago, baina konpromisoa badago.



Munalurrako kaleen zentzua aldatzea onartu bada ere, oraindik ez da egin.

**JOSETXO IKATZETA**  
Iturgintza  
TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

**TXAPELDUN**  
TABERNA  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna lurren 2, 943 11 82 53

Josue  
Igeltseritza:  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Patri Jatetxea**  
K/nagusia 14. © 943 362 725



# emakumeon eguna

## **Martxoaren 1etik 15era:**

**USURBILGO EMAKUMEAK PROTAGONISTA** ARGATKI FRAKUSKFTA  
OJARDO KIROLDEGIAN ETA ARTZABALEN EGONGO DA IKUSGAI

## **Martxoaren 6an eta 7an:**

**EMAKUMEON ESKUBIDEEN ALDEKO PALAKADAKI** Emakumeen pala txapelketa  
FRONTOIAN 18.30ETAN

BINAKAKO TXAPELKETA. 10 MINUTUKO PARTIDUAK.

17FN FMATFA: 943 377110 TFI FFONORA DFTTU7 FDO [parekidetasuna@usurbil.net](mailto:parekidetasuna@usurbil.net) HFI BIDFRA IDAT717.

## **Martxoaren 7an:**

**MURAL PINTAKETA**

**GAZTELEKUKO GAZTEEKIN**

FRONTOIAN 17.00FTAN.

## **BERTSO AFARIA**

ARTZABALEN 21.00ETAN

PREZIOA: 15 €, IIKETAK IXIRIBOGAN ETA ARTZABALEN SALGAI.

"G07AMFN7 " KI OWN BAKARRITZKFTA

ITZIAR SANZ DE OJERREN ESKUTIK.

BERTSOLARIAK: MAIALEN LUJANBIO,

UXUE ALBERDI ETA AMAIA AGIRRE.

LAGUNIZAILEA: BÓIAPUNI IUBA BERTISO

FSKOI A.

**Antolatzailea:**

**Usurbilgo Parekidetasun kontseilua**



Usurbilgo Udala



# Gurasoak ere, Mintzalagun

Euskalduntzeko aukera aparta eskaintzen du eta giro ederra izaten da taldean

**A**urreko astekarian, ikasleen eta gurasoen artean erdararako joera nagusitzen ari dela eta, Udarregi Ikastolan zuten kezka berri eman genuen. Eremita honetan giroa euskalduntzeko bideratzekoak ziren zenbait ekimenen berri baita. Tartean mintzalagun taldeak osatu nahi dituzte ikastolako gurasoekin. Zenbait aita-amek emana dute euskara sustatzeko pausoa. Mintzalagun egitasmoa gertutik ezagutzen duenetako bat dugu hain zuzen, Eva Lizarraga. Euskara ikasten ari den Arantxa Rabano herritarrarekin eta beste bi lagunekin batera astero biltzen dira mintza praktikorako. Lagun arte giro ederra dute. Euskara euren bizitzako gorabeherak partekatzekeo hizkuntzan bihurtu dute.

## Nolatan animatu zineten parte hartzera?

**Eva Lizarraga.** Mintzalaguna den Aitziber Elortza ezagutzen nuen. Errefortzu moduan eta taldean sartzeko proposatu zidan. Euskarako irakasle izateko glotodidaktikako ikastaroa egiten ari nintzen AEK-n. Interresgarria zitzaidan eta horrela hasi nintzen.

**Arantxa Rabano.** Euskaltegian. Irakasleak esan zigun mintzalagun egitasmoa zegoela eta azkenean animatu nintzen.

## Lehendik bazenuten harremana edo orduan elkar ezagutu zineten?

**A. R.** Orduan elkar ezagutu ginen. Hasieran lotsarekin, baina gero pixkanaka ondo. Oso ondo konpontzen ginen. Orduetik, kafea hartu eta gure gauzei buruz hitz egiteko biltzen gara astero.

## Zer da ordubete horretan egi-



Arantxa Rabano eta Eva Lizarraga, Mintzalaguneko kideak biak.

## ARANTXA RABANO

*“Mintzalagunekoekin geratzeak asko laguntzen dit, gero kalean jendearekin hitz egiteko”*

### ten duzuen?

**A. R.** Elkarrizketa normal bat da, gure gauzen ingurukoa. Lagun arteko solasaldia da.

### Euskara dakigunontzat, zer ekarpen egin diezaguke Mintzalaguneko?

**E. L.** Guk hizkuntza menderatzen dugu, baina hizkuntza bat, hitz egiteko da. Gure artean beti dago ideia desberdinen truke bat. Nik lanen baterako zerbait behar badut eurei kontsultatzen diet. Edo haurrei buruz ere hitz egiten dugu.

### Euskaltegian euskara ikasten arituta, zertan lagundu dizu Mintzalaguneko parte hartzeak?

**A. R.** Lotsa galtzeko, gero kalean hitz egiteko. Azkenean euskaltegian ikasten dugu, han ere hitz egiten dugu. Kalean gero beste gauza bat da. Min-

tzalagunekoekin geratzeak asko laguntzen dit, gero kalean jendearekin hitz egiteko. Iloba bat dut, hiru urte ditu eta berekin beti euskaraz hitz egiten dut. Gero parkean beste gurasoek entzuten zidaten euskaraz eta haiek ere nirekin ere euskaraz hitz egiten dute. Moldatzen naiz pixkanaka.

### Zergatik animatuko zenituzkete herritarrak Mintzalagun egitasmoan parte hartzera?

**E. L.** Beti zabaltzen duzulako zure taldea. Batzuetan mugatua dugulako lagun artea, eta beti oso aberatsa da eta malgua izan daiteke. Azkenean norbaitek ezin badu etorri, saiatzen gara beste egun bat bilatzen. Emailaz egiten ditugu moldaketa horiek.

**A. R.** Euskara ikasten arituta, ona da hitz egiteko, lotsa galtzeko. Eta ondo pasatzen dugu. Anima dadila jendea.

### Zer diote ikaskideek, zuen ingurukoek?

**A. R.** Mintzalagun taldeetan dauden guztiak pozik daude. Bestela bakarrik euskara ikasten euskaltegian geratzen zara eta kalean euskararik gabe.

Mintzalaguni esker, kalean topatzen bagara euskaraz hitz egiten dugu. Haurrekin baita. Handitzen doa euskaraz hitz egiteko eremua.

**E. L.** Mintzalaguneko hasi nintzenez, ama animatu nuen baita. Lasarten ere bada Solaskide egitasmoa. Bera ere beti kexatzen da jasotako euskaraz, konplexu hori dute, ez dutela ondo hitz egiten. Galtzen hasia zegoen euskara. Ttakunen apuntatzeko animatzen nuen eta orain oso pozik dago.

### Gurasoen artean erdararako joera nagusitzen omen da. Zuen inguruan, hala da?

**E. L.** Aitortu behar dut gure kasua ere hala dela. Senarrekin erdaraz gehiagotan hitz egiten dugu eta esfortzu berezi bat egin behar dugu euskarara bueltatzeko, eta errazenera jotzen dugu. Bera niri erdaraz hasten bazait, bat batean ateratzen zaidana erdaraz da. Nik ere erdaraz ikasi nuen. Baina konturatzen garenean, euskarara bueltatzen gara. Bestalde, beste kultura indartsuago batean murgilduta gaudete. Hori ikusten dut baita umeekin.



# Dakitenentzat eta ikasi nahi dutenentzat

Gurasoen arteko giroa euskalduntzeko batzuen eta besteen lana garrantzitsua da

**U**darregi Ikastolako gurasoen artean mintzalagun taldeak osatu nahi dituzte. Helburu nagusi batekin; "Euskara ikasten ari diren gurasoei euren euskara maila hobetzeko aukera" emateko asmoz. Baina baita, lagun artea zabaldu edota ikastetxeko gurasoen arteko giroa euskaldundu nahian ere.

Interesdunek izen emate orria Udarregi Ikastolako idazkaritzan utzi dezakete edo nor bere datuak eman Etumeta AEK euskaltegira deituta, 607 609 379 telefono zenbakira hain zuzen. "Zerrendak osatzen direnean,



Interesa dutenek Udarregin eman dezakete izena edo euskaltegian bestela.

zuekin jarriko gara harremanetan", berri eman dute ikastolako web orrialdetik. Izen ematea doakoa da noski, eta

eskatzen den gauza bakarra, "euskara ikasteko eta erabiltzeko gogoia da!".

Ikastolan modu honetan bi-

deratu nahi dute Mintzalagun egitasmoa. "Gurasoon artean talde txikiak sortuko ditugu; euskaraz dakien jendea eta ikasten ari direnak elkartuko gara, talde bakoitzak jarritako ordutegi eta egunetan, euskaraz hitz egiteko. Taldeak osatzeko gure interesak eta zaletasunak ere kontuan izango ditugu, taldeetako giroa gustukoa izan dadin. Taldeak 3 edo 4 lagunekoa izango dira eta Udarregi ikastolako gurasoei osatuko ditugu. Gogoratu euskaldun zaharren laguntza ere ezinbestekoa dela, beraz, euskara ikasten ari zaretenak nahiz euskara badakizuenak animatu!", luzatu dute gonbita Udarregitik.

\* BOKATA MENUA 8,50€

IRATXO Taberna

ESKAINTZA CARLSBERG GARAGARDOA + BOKATATXOA 2€

\* Iratxo Tabernaren bokata, tapak eta aurkibideak bakarrik dago.  
Tel: 945 374 330 • Edo: 900 00 111 • Usurbil  
www.iratxo-de-usurbil.iratxoebok.com

Tapak eta aurkibideak prest

Agur esan diegu 2012 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2012ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



**ERRAUSTEGIRIK EZI!**



*Azken bultzada emaiozu!*

**MARTXOAK 3, IGANDEA**

**Dema plazan herritarren agerraldia  
11:30 - 14:00 bitartean gerturatu eta  
**AZKEN BULTZADA EMAIOZU!**  
13:00 Ekitaldia eta argazkia**



**Usurbil Zero Zabor**

aire  
garbik  
bira  
nazar

# Domina gehiago judon

**H**amabost jokalariko ordezkari-tza aurkeztu eta hamabik domina bana irabazi zuten joan den otsailaren 3an, Lezoko Be-koerrotako kiroldagian. Urrezko, brontzezko eta zilarrezko launa domina guztira. Usurbil Judo Klubeko garai-penek ez dute etenik, argi den moduan.

## MUTILAK

-55 kg Manex Aburuza (Brontzea)  
-60 kg Ion Rubio (Zilarra)  
-60 kg Nestor Laca (Brontzea)  
-73 kg Xabier Cazorla (Urrea)  
-90 kg Ugaitz Etxeberria (Urrea)  
+ 90 kg Iñigo Garcia (Urrea)  
+ 90 kg J. Arruebarrena (Zilarra)

## NESKAK

-44 kg Paula Vicente (Urrea)  
-44 kg Ainhoa Gonzalez (Zilarra)

-48 kg Naroa Sanchez (Zilarra)  
-48 kg Mainer Matilla (Brontzea)  
-52 kg I. Arruabarrena (Brontzea)

## NESKEN LIGA NAZIONALA

Usurbil Judo Klubeko zortzi neskek, Liga Nazionalako norgehiagoketan parte hartu zuten, otsailaren 2an, Villaviciosa de Odon udalerrian. Liga honen lehen jardunaldian hain zuzen. Guztira bost borrokaldiran parte hartu zuten; lau irabazi eta beste bat galdu zuten. Usurbil Judo Klube-ko blogetik berri eman dutenez, han ziren: Eneritz Agoñes, Miriam Gonzalez, Aiora Arrillaga, Jaione Equisoain, Andrea Arruabarrena, Ane Cazorla, Nerea Arruti eta Sara Alvarez. Hurrengo jardunaldia, martxoko lehen astean jokatuko dute.

Bestetik, kadete mailakoak emaitza onekin itzuli dira Tenerifetik:



Lezon jokatu zen Judo Txapelketa.

-44 kg Paula Vicente (urrea).  
-48 kg Naroa Sanchez (urrea).  
-52 kg I. Arruabarrena (brontzea).  
-73 kg Xabier Cazorla (urrea).

## Usurbil FT, Aste Santuko kirol txokoak

Apirilaren 2tik 6ra burutuko dela berri eman dute antolatzaileek. Izen emateko aukera izango da martxoaren 12an eta 15ean, 16:45-18:00 artean Haranen. Kuota, 40 eurokoa. Inskripzio orriak eta informazio gehiago, futusurbil@yahoo.es helbidean.

# Gure Pakeako txapelketak amaitu dira

**3**5 bazkideek parte hartu dute Gure Pakea Elkarteak azken asteotan, antolatu dituen mahai eta mugimenduko jokoetan. Puntuari, tutean, musean, tokan eta igel jokoan aritu ziren otsailaren 12, 13, 19 eta 20an. Azken egunean, sariak banatu zituzten. Garaileak ondoko argazkian dituzue. Borobiltzeko, luntx ederra dastatu zuten. Antolatzaileek, eskerrak helarazi nahi dizkiete parte hartu duten guztiei.



35 bazkidek hartu zuten parte. Saritutakoak ageri dira argazkian.

## Pilota partidak

Martxoak 1, ostirala

20:00etan Aginagan

Eskuz binaka jubenilak 3. maila  
USURBIL (J. Irazusta-M. Portularrome)  
BELOKI (Zumarraga)

Paleta Goma nagusiak 2. maila

USURBIL 2 (X. Murua-I. Esnaola)  
BELOKI 2 (Zumarraga)

## Eskubaloitxo partidak

Martxoak 2, larunbata

11:15 Infantil mutilak:

Udarregi Usurbil-C.D. Egia

15:30-17:30 Kadete mutilak  
selekzioaren kontzentrazioa.

18:15 Senior mutilak 2. nazionala:  
Atez Ate Usurbil-Quiron Askartza.

Martxoak 3, igandea

9:00-11:00 Kadete neskek Gipuzkoako  
Selekzioaren kontzentrazioa.

11:30 Infantil neskek:  
Udarregi B -Udarregi A

## Futbol partidak

Martxoak 2, larunbata

9:00 Alebin mutilak  
Futbol 8 Udarregi 5.

9:00 Alebin mutilak  
Futbol 8 Udarregi 6A.

10:00 Infantil mutilak F-11.

12:00 Regionalak.

12:30 Kadeteak, areto futbola.

15:30 Neskak.

## Eskubaloiko selekzioaren deia

Arrate Imaz, Olatz Uli, Leire Furundarena eta Josebe Blazquez jokalariek Gipuzkoako eskubaloitxo selekzioarako hautatuak izan berri dira.





# Igande honetan, errauste plantari “azken bultzada” emateko deia

**Z**ubietako errauste planta egitasmoa behin betiko bertan behera uztea eskatzeko azken bultzada ematera deitu dute Usurbil Zero Zabor (UZZ) taldetik. Igandean, 11:30etatik aurrera frontoian burutuko den ekimenera gerturatzea deitzen dute. Martxoaren 3ko hitzorduaren berri, eta hondakinen kudeaketari lotuta pil-pilean diren zenbait gaien inguruan mintzatu dira NOAUA!rekin.



Igande honetan, hainbat ekitaldi egingo dira frontoian eta Dema plazan.

## Iganderako zer antolatu duzue?

**Usurbil Zero Zabor.** Egitaraua goizeko 11:30ak eta eguerdiko 14:00ak arteko tartean garatuko da. Dema plazan erraustegiaren maketa bat kokatuko da, eta horren inguruan herritarrak agertzea eta bakoitzak bere bultzada ematea nahi genuke, (bikoteka, taldeka, kuadrilan, .. argazkiak aterako dira maketaren alboan) behin betikoz proiektua atzera botatzea eskatzen dugula adieraziz. Goiza girotuta egongo da, “hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan, ikusiko dek nola nola laster eroriko dan” abestia bertsoz lagundurik abestuko dugu denon artean, musika zuzenean izango dugu... Ekitaldiaren une gorena 13:00ak inguruan izango da, orduan, bertaratzen diren herritar guztiekin argazki bat aterako baita, erraustegiari bultza eginez.

## Zergatik martxoaren 3ko ekimen hau?

Herritarron OSASUNA eta INGURUMENA beste edozeren gainetik daudela birgogorarazi nahi dugu. Carlos III. unibertsitateko Epidemiologia zentroak argitaratu berri duen

ikerketak arrisku hori egiaztatu du. Administrazioak erabakiak herritarren interesei begira hartu behar ditu, eta, herritarrak bestelako interes kaltegarrietatik babestu. Errausketa, tratamendu zaharkitu, garesti, kutsakor eta arriskutsua da. Badira hiri hondakinak kudeatzeko era osasungarriago, merkeago eta jasangarriagoak.

*“Mehatxuak hor jarraitzen du baina Zero Zabor jokabidearen aroa ireki da Gipuzkoan”*

Bada garaia erraustegiaren proiektua behin betiko bertan behera uzteko, herritarrak, osasuna eta ingurumena ardatz izango dituen hondakinen kudeaketa eredu gauzatzeko.

Errauste proiektua eta kontratuak behin betiko bertan behera uztea eskatzen dugula adieraztea da ekimenaren helburua.

## Zergatik parte hartu igande-

## ko hitzorduan?

Errauste plantaren mehatxuak hor segitzen duelako. Herritarrok erakundeetako arduradunei ozen eta garbi esan behar diegu aukera onargarri bakarra dagoela, kontratuak eten eta behin betiko proiektua bertan behera uztea. Zero zabor jokabidearen aroa ireki da Gipuzkoan, eta horretarako traba handia da erraustegiaren proiektuaz eten gabe jardun beharra. Gure indar asko alferrik galtzea besterik ez du eragiten.

## “Indar erakustaldi bat egiteak garrantzia handia dauka”

### Errauste planta egitasmoa zertan da?

Suspensioan egon da hauteskunde ondoren GHKn kudeaketaz arduratzen direnak aldatu zirenetik. Bankuekin eta enpresekin negoziatzeko epea izan da hori, erraustegiaren proiektua ahalik eta kalterik txikienarekin bertan behera utzi nahian. Epea asko luzatu da eta erabakiak hartu beharoko dira norabide batean ala bestean. Herritarron indar erakustaldi bat egiteak garrantzia handia dauka une honetan. Azken urteotan egin ditugun

ahalegin guztiak alferrik izan ez daitezten mugitu beharra daukagu. Eman diezaiozun azken bultzada, behin betikoz erraustegiaren proiektua albo batera gera dadin.

### Nork du hondakinen kudeaketan, azken hitza?

Kontua ez da gure ustez noren eskumena den, baizik eta arauen arabera norena den. Errauste plantaren lanak GHK eta enpresen arteko kontratuen ondorio dira. GHKaren eskumena da legez eta logikaz kontratu horien kudeake-

ta. Azpiegiturek hiri hondakinen errealitateari erantzun behar diete. Gipuzkoako udallerrien gehiengoak zero zabor norabidean konpromisoak hartzeko borondatea publikoki adierazi dute. Adierazitakoa gauzatzen ere hasi dira zenbait, eta, azken urteotako emaitzek ere baieztatzen dute aurreko plangintzetan egindako aurreikuspenak errealitate oso urrun daudela. Beraz, GHKn daukagun ordezkariak, herritarrek eta udalek adierazitakoari erantzungo dien azpiegituren alde egingo du.



# “Euskal Herri osora hedatu da hiri hondakinen eztabaida”

**4 urte betetzear ditu atez atekoak Usurbilen. Zer esan daiteke urteurrenean?**

**Usurbil Zero Zabor.** Orduan hitzez esaten genuena erakutsi da, hau da, hondakinak errausketarik gabe kudeatzea hobe izateaz gain posible ere badela, bilketa emaitza ikusgarriak lortuz han eta hemen. Askok jarrera ezkorra izaten dute halakoetan. “Usurbilek bakarrik egiten badu ez du ezertarako balio” zioten askok orduan. Baina Usurbilek posible dela erakusteak ekarri zuen Hernanin, Oiartzunen eta Antzuolan urrats hori egiteko aukera. Teknologiarik aurreratuenak baino gehiago egin dezake herritarraren eskuak eta borondate irmoak, horixe erakutsi da atez atekoa abian dagoen herrietan. Eta hauek egin izanak, orain, Gipuzkoan beste 34 herri, bide horretan egotea ahalbidetu du. Dudarik ez izan, 38 herriok, atzetik beste urrats berriak etor daitezten baldintzak sortuko dituztela. Eta kontua ez da hor gelditzen, Usurbilek orduan emandako urrats hark, ia Euskal Herri osora hedatu du hiri hondakinen eztabaida, ezer ez da berdin hondakinen kontuan Usurbilen atez ateko bilketa ezarri eta gero. Gure ahalmenean sinistu behar dugu.

**Laster udalerrri gehiagok abiatuko dute atez atekoa.**



Azpeitia, Zarautz, Ormaiztegi edota Zubietako herritar batzuk prentsurrekoa eskaini zuten Lapatzen.

**Usurbilgo ikuspuntutik, nola ikusten duzue hau guztia?**

Gezurak, kontrako mugimenduak... denak ezagutu genituen Usurbilen ere. Ezarpenaren fase bat bezala hartu behar da. Errausketa proiektuaren atzean zer-nolako interes ekonomikoak dauden konturatzeko argigarria da bizitzen ari diren tentsioa. Indar latza daukate hor atzean dauden botere ekonomikoek, gure egunerokoa mediatizatzekeo baliabideak eurenak baitira. Baina errealitateak, eta ondo egindako lanak oztopoak gainditzea posible egiten dute.

**Martxoaren 7an, Europako Parlamentuak jokabide on bezala aztertuko du Gipuzkoako hondakinen kudeaketa eredia. Zuen ikuspegitik, zer suposatzen du honek?**

Egoera perspektibarekin ikusteko aukera ematen du. Ba-

tzuk tematzen dira hau lau zororen harrikada balitz bezala aurkezten, atzera egitea dela eta beste hamaika txorakeri esanez. Baina hemen egiten ari garena, Europan eta munduan interes handiz ari dira begiratzen, eredugarritzat daukate. Horrek gauzak bere lekuan jartzeko eta aurrera egiteko indarra hartzeko balio beharko liguke.

**ATEZ ATEKOAREN ALDE**

Azpeitia, Zarautz, Ormaiztegi edota Zubietako herritar talde batek eskaera bat luzatu zuen, Azpeitiako Lapatx zabortegean eskaini zuten prentsurrekoan. Hondakinen arazoa guztiona izanik, aipatu arazoa konpontzeko ere “guztiok gure zatia jarri behar dugu”. Gipuzkoa zero zabor lurralde izatea posible da euren ustez, beraz, “Zergatik ez saiatu?” galdetzen zuten.

## Ekolo-olio jardunaldiak, igandetik aurrera

Itaya Gazte Asanbladak antolatuta ditu Usurbilgo Gaztetxean, martxoaren 3tik 7ra. Doako ikastaro hauek:

- **Martxoak 3 igandea** 16:30  
Gaztetxean: “Olioarekin xaboia egiteko kurtsua”.
- **Martxoak 5 asteartea** 19:00  
Gaztetxean: “Olio erabilia autoarentzat erregai” ikastaroa.
- **Martxoak 7 osteguna** 18:30  
Gaztetxean: “Eguzki labe eta sukaldearen tailerra”.

## Hotza ez zen traba izan kantu jiran

Gustura geratu dira beste behin, Kantu Taldekoak hilaren 23ko kantu-jira saioarekin. “Ederra benetan otsailaren 23ko Kantu Jira. Hotzari eta bustiari aurre eginez, talde beroa elkartu ginen kantugosez. Peio trikitilaria eta Susi gitarra-jotzailea lagun genituela, tabernaz taberna une goxo eta politak pasa genituen. Tabernarien eskuzabaltasuna ere bultzatzaile izan genuen, eskaini ziguten sagardoarekin zintzurra bustiz. Eskerrik asko denei”, adierazi nahi izan dute Kantu Taldekoek. Asteartero biltzen dira entsegu saioetarako, 18:30etatik aurrera Udarreki Ikastolako musika gelan.



Giro onean aritu ziren kantuan.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65

**TAXI**

607 92 87 70  
943 00 44 83

Angel (24h) USURBIL

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, + 60metroko trasteroekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 220.000 euro. 636393237

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkioekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 216.000. 662 056 899

Pisua salgai Txaramunton. Berria, bi logela, egongela, terraza ikusgarria. Trastero handia. 276.000 euro. 615 720 245.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuena auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com) Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzan jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

**Alokairuan**

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Etxe bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa:

700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzeta egiteko aukera. 665 720 913.

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 [nerrezabala1@gmail.com](mailto:nerrezabala1@gmail.com)

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

**MOTORRA****salmenta,  
garajeak**

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modu-

koa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Peugeot Satelis markako motoa salgai. 4.000 km. Urte eta erdi du. 627 342 464.

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Seat Ibiza salgai. 1004 TDI. 2004. urtekoa. Oso egoera onean. 2.000 euro. 667 715 075

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m<sup>2</sup>, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 [nerrezabala1@gmail.com](mailto:nerrezabala1@gmail.com)

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrik ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest

nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrik emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrik emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005"

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrik emateko. Telefona: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrik emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666041971 (Ane)

Jardinertza lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzetan laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko



**Aupa Kattalin!!** Zorionak Agiñako eskolatik. Martxoaren 2an larunbata lau urte beteko dituzu. Eskolan ospatuko dugu, denon artean.

**Heriotzak**

**Angel Garcia Sanchez**  
79 urterekin hil zen,  
otsailaren 22an

**Heriotzak**

**Jose Martija Makazaga**  
68 urterekin hil zen,  
otsailaren 25ean



**JE JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA**  
**OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL [jon.elorza@hotmail.com](mailto:jon.elorza@hotmail.com)

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
[publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan haurrak

zaintzeko zein klase partikularrek emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatur. Badut esperientzia. 652712099.

### Lan eskaintzak

Usurbil aldean komertzialak behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. 943374330

### BESTELAKOAK

Setter-spaniel nahasketako txakurra galdu da Usurbilgo kaxkoxan. Chip-a dauka eta txuri du izena. 608 60 32 52.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600244 126

Txamarra eta jertse bat galdu dira Atxegalden. Udarregiraigotia jertse-tekoeskailera ondoan. 660779160

Su egurra salgai. Haitza eta

Pagoa. (Etxera eramaten da). 667 232 300.

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko genioke. Tel. 639 469 577.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (lker)

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Etxean egindako ardi gazta sal-tzen da. 687 348 223

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurreak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

### TRUKEAN, OPARI

Behar ez dudana Daewoo markako telebista, 28" bere kanpo TDT arekin, behar duenari emateko prest. 657770131 WhatsApp.

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haur jokoak, liburak, kirol materiala, ispiluak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak, bizikletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerdik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala .....	943 371 951	Taxia (Angel) .....	607 928 770
Atez ateko bulegoa .....	900 776 776	Taxia (Joxe Kruz) .....	677 373 466
Udaltzaingoa .....	943 361 112	Eusko Tren .....	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada) .....	943 370 148	LurraldeBus .....	943 000 117
Sexu Aholkularitza Gunea .....	697 919 516	Korreos - posta zerbitzua .....	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak .....	943 377 110	Anbulategia .....	943 362 013
Diputazioa - Basetxea .....	943 361 215	Oa botika .....	943 376 076
Bake Epaitegia .....	943 372 336	Iturralde botika .....	943 363 395
Udarregi Ikastola .....	943 361 216	DYA .....	943 464 622
Haur Eskola .....	943 374 061	Gurutze Gorria .....	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola .....	943 364 600	Emergentziak .....	112
Zubietako Herri Batzarra .....	943 372 077	Genero-indarkeria, arreta. 900 840 111 / 016	
Hastapen tailerrak .....	943 360 465	Gonzalez Ehorztetxea .....	943 362 163
KZgunea .....	943 023 684	Gipuzkoa Donostia Kutxa .....	943 361 202
Oiardo Kirolegia .....	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia .....	943 360 692	Banco Guipuzcoano .....	943 370 006
Zumarte Musika Eskola .....	943 371 594	Banco Popular Español .....	943 370 411
Etumeta AEK Euskaltegia .....	607 609 379	BBVA .....	943 377 155
Kalezar Eguneko Zentroa .....	943 365 249	Caja Rural Kutxa .....	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza .....	943 368 770	Argindarra - Iberdrola .....	901 202 020
Gure Elkarte Zahar Egoitza .....	943 371 751	Gas naturala - Naturgas .....	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza .....	943 366 340	Telefonica .....	1004
Abere-Landare Babeslea .....	943 376 650	Euskaltel .....	900 840 840

## Goardiako farmaziak otsailak 28-martxoak 10

**Osteguna 28** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Ostirala 01** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42 Lasarte

**Larunbata 02** ORUE Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

**Igandea 03** ORUE Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

**Astelehena 04** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astearte 05** ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Asteazkena 06** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

**Osteguna 07** GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola 9 Lasarte

**Ostirala 08** ORUE Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

**Larunbata 09** ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Igandea 10** ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6 Lasarte

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00etatik  
13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8  
(Antziola). Hernani. 943 336 022  
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

## ALKORTA AUTOZERBITZUA

**Baserriko haragia**

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Jose Aizpurua  
Unanue eraikuntzak S.L  
teilatua eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA



# Agenda martxoa

## 1 ostirala

- **Kutsaduraren aurkako elkarretaratzea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- **"Usurbilgo emakumeak protagonista" erakusketa.** Oiardo Kiroldegian, Artzabalen.

## 2 larunbata

- **Oria ibaiaren garbiketa.** 10:00etan Santuenean.

## 3 igandea

- **IV. Tipi-Tapa.** Eguerdik partean. Artzabal, Txapeldun, Bordatxo, Aitzaga eta Txiribogan.
- **Olioarekin xaboa egiteko ikastaroa,** Usurbilgo Gaztetxean 16:30ean.

## Auzolanerako deia egin du Urgardenek, Oria ibaia garbitzeko

Urgardenen esanetan, Oria ibaiaren egoera kaxkarra da, zabortege baten parekoa, baita Usurbilgo eremuan ere. Garbiketa lanak burutzeko, deialdia egin dute larunbat honetarako. "Santuenea auzoko zubian elkartuko gara, Oria ibaiaren zati bat garbitzeko", adierazi dute prentsa-ohar bidez.

Ez da gauza berria. Aspalditik datorren kontua da. Urgardenek dioenez, "Oria ibaia bereziki egoera tamalgarrian aurkitzen da eremu honetan. Anima zaitzete inguru eder honetan ibaiak duen egoera hobetzera" diote, eta horregatik egin dute auzolanerako deia.

Egoki jantzita agertzearekin nahikoa da. "Garrantzitsua da gomazko botak edota oinetako egokiak ekartzea, guk plastikozko poltsak eta



Irudi hau abenduan atera zuten Oria ibaian.

esku-larruak banatuko ditugu denon artean", adierazi du Urgardenek prentsa-ohar bidez.

- **Eguna:** martxoak 2 larunbata.
- **Ordua:** goizeko 10:00etan.
- **Lekua:** Usurbilgo Santuenea auzoko zubian.

### Datozenak

#### Dancehall tailerra

Martxoaren 9an, 17:00etan Dancehall tailerra antolatu du Usurbilgo Gaztetxeak. Izena emateko deitu 627 285 904 edo idatzi usurbilgogaztetxea@gmail.com helbidera.

#### Donostiako Kamara Korralaren emanaldia

Donostiako Kamara Korralak bisitatuko gaitu martxoaren 9an. Salvatore Elizan arituko da 19:30ean. Euskal kanten erreperorio hainbat abesti berreskuratzera dator.

#### Ekzerreta-Goizueta mendi ibilbidea

Andatza Mendizale Elkarteok irteera hau antolatu dute martxoaren 10erako. Goizeko 7:00etan abiatuko dira Kiroldegitik. Datu gehiago: [www.andatzamendizale.info](http://www.andatzamendizale.info)

## Astehenean, odol ematea

Astehenean, martxoak 4, odol ematea ambulatorioan (18:00-20:30). 2012 urtearen balantzea ona izan zen "hala ere, ezin esan nahikoa denik. Egunerokoa baita odolaren beharra". Astehenean dago aukera berri bat odola emateko.

## Stop Etxegabetzeak, hitzaldia

Etxegabetze ugari eman dira azken boladan eta horrek ondoeza eragin du herritar askoren artean. Stop Etxegabetzeak elkarreko kideek asteartean hitzaldia eskainiko dute Potxoenean, arratsaldeko 19:00etan. Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

## Antxomolantxaren batzarra

Bazkideei zuzenduriko bilera antolatu du Aginagako Antxomolantxa Elkarteak. Hitzordua datorren asterako ipini dute, martxoaren 7an osteguna arratsaldeko 18:30etan. Aginagako ludotekan egingo da bilera.

**LATAILLADE**  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea **943 363 348 - 609 888 021**

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia 10, 1.C4 20170  
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

Sarreraren salmenta





Informazio gehiago:  
943.303.540  
www.endoain.org



emakumearen nazioarteko eguna



TE OLINDO...  
Mea, un resaca, un dolor menstrual,  
con trabajo digno, respetado... y feliz...  
...MUJER

**MARTXOAK 8, ostirala**  
19:00 - EMAZTEARTE erakusketaren irekiera



21:30 - Antzerkia  
"La Reina de la  
belleza de Leenane"

**Martxoak 15, ostirala**  
21:30 - Andoaingo emakumeen Kontzertua:  
"EMEKUMEAK"



**Martxoak 9, larunbata**

12:00 - Bastero plazatik  
hasita "Martxoak 8  
emakume ... pausoz pauso"



**Martxoak 19, asteartea**  
19:00 - Konferentzia: "Emakumea eta  
artista izan Euskal Herrian"

**Martxoak 11, ostelena**

19:00 - Mahai-ingurua: "M15az geroztik  
feminismoaren praxia eta teoria"



**Martxoak 20,  
asteazkena**  
19:00 - Zinea:  
"Las Chicas de la  
6ª planta"

**Martxoak 14, osteguna**

19:00 - Hitzaldia  
+ dokumentala:  
"A los Puertos de París"



**Martxoak 22, ostirala**  
19:00 - "Emakumea eta ardoaren kultura"  
Hitzaldia + ardo kata

**Andoain Ekitaldiak**

<http://basterokulturgunea.blogspot.com.es>

2013

# LABUR BIRA

FILM LABURREN X.ZIRKUITUA

MARTXOAREN 13an, 19:30etan SUTEGIN










# SAGASTIEN KIMAKETARI BURUZKO IKASTAROA

ALKARTASUNA KOOPERATIBAK ANTOLATUTA

MARTXOAK 9 AN  
4 ORDU, 2 TEORIKOAK ETA 2 PRAKTIKOAK  
9.00etatik 13.00tara

**DOAN!**

IZENA EMATEKO:  
[alkartasuna@usurbil.com](mailto:alkartasuna@usurbil.com)  
943361114  
Atallu industrialdea 26, Usurbil

